

GERNIKA-LUMO / Iraun duen hilabetean 59 bazkide irabazi ditu udako liburutegiak

Tailerrak ere antolatu dituzte aurten, lehenengo aldiz, eta guztira 113 umek parte hartu dute horietan.

O. CABELLO

Uztailaren 13tik abuztuaren 12ra iraun du udako liburutegiak, eta denbora tarte horretan 59 bazkide berri egin ditu. Horregatik, pozik agertu dira liburutegiko arduradunak. Izan ere, azaldu dutenez, kurtsoan zehar hilabete bakoitzeko batz bestea 23 lagunek eman ohi dute izena liburutegian.

Era berean, hilabete horretan egin dituzten maileguek ere gora egin dute, 2009ko datuekin alderatuz gero. Hain zuzen, 1.404 erabiltzailek egin dute mailegua aurtengo udako liburutegian. 2009an, aldiz, 1.322 izan ziren guztira egindako maileguak.

Liburutegiko arduradunen ustez, bereziki nabarmentzekoa da helduek egindako maileguek izan duen hazkundea. Zehaztu dutenez, aurtengo udako liburutegian guztira egin izan diren 1.404 maileguetatik 1.044 helduek egin dituzte.

Tailerrei harrera ona

Aurten, lehenengoz, umeei zuzendutako tailerrak ere eskaini ditu udako liburutegiak, eta horiek izan duten harrerarekin "oso pozik agertu dira antolatzaileak. Guztira 113 umek parte hartu dute tailerretan, euren gurasoak edo senitartekoak kontuan hartu gabe.

Tailerren antolatzaileak pozik daude bai umeei zein familiakoek egin dieten harreragaz, "benetan parte hartzeko eta lanerako prest agertu baitira. Hori dela eta, datozen urteei begira familiarrean egiteko tailerrak antolatzeko asmoa agertu dute liburutegiko arduradunek.